



## Santa Katalina Itsasargia

Itsasargiak kostaldeko leku estrategikoetan kokatutako eraikinak dira; beren zeregina da argi-izpien bidez marinela orientatzea. Antzinaroaz geroztik, marinela argi-seinaleen bidez gidatu izan dira beren bidaietan. Lehendabiziko itsasargiak sua baino ez ziren; batzuetan, eguraldi txarretik babesten ziren egitura simple edo konplexuen bitartez. Itsasargia edo faroa hitza Pharos uhartetik dator, hau da, Alexandriako Itsasargia eraiki zen lekutik. Antzinaroko munduko mirarien artean kontsideratuta, Alexandriako Itsasargia Ptolomeo II.aren erresuma-aldian eraiki zen, K.a. III. mendean, eta XIV. mendera arte jarraitu zuen jardunean. Denboran zehar, itsasargiak eboluzionatuz joan dira, teknologia berrien aplikazioaren eskutik. Egurra erre beharrean, islagailu parabolikoak zituzten olio-lanparak erabiltzeari ekin zioten. XIX. mendeaz geroztik, itsasargien eraginkortasuna nabarmenki hazi zen, Agustín Fresnel fisikari frantsesaren ekarpenei esker; izan ere, argia indartzea eta kontzentratzea ahalbidetzen zuen lente mota berezi bat eraiki zuen, gaur egun Fresnel izenez ezagutzen duguna.

Argi elektrikoa 1858ean erabili zen aurreneko aldiz, eta harrezkero gainerako argitzapen motak ordeztu zituen poliki-poliki. Gaur egun, itsasargi gehienek energia elektriko autonomoko iturri mardulez funtzionatzen dute, eta gai dira seinaleak 30 miliara edo gehiagora bidaltzeko. Gainera, oraingo itsasargi batzuek irrati-faro izeneko sistemak dituzte, hau da, irrati-seinale espezifikoak emititzen dituzten sistemak. Halaber, soinu-seinaleen emisoreak ere izaten dituzte, eta laino-guneak agertzen direnean aktibatzen dituzte.

